

IKASLEEN TXOKOA 105. ZENBAKIA

Hernani BHI

DBH 1-2

2022-2023ko ikasturtean, Hernani BHI-ko DBH 1. mailako ikasleek dibulgazio-artikuluak lantzeko iturri desberdinetara jo dute. Hala, Axeri-dantza, Herri-kirolak, Arimen gaua Euskal arratzari buruzko gaiak landu dituzte.

Bestalde, DBH 2. mailakoek erreportajeak sortu dituzte eta horretarako euskararekin harrmen desberdinak izan dituzten pertsonak elkarrizketatu ditute, eta haien esanak jasoz sortu dituzte beren lanak.

Zuen gozamenerako izatea espero dugu.



Euskarazko musikak etorkizunik bai?

Gaur egun musikari asko dago hizkuntza desberdinetan abesten dutenak. Euskaraz egiten dutenak ez dute hainbeste fama ingelesez edo erderaz abesten dutenekin alderatuta. Baina badago oraindik jendea euskarari indarra ematen diona, horietako bat da Xabi Solano. Horregatik egin diogu elkarrizketa hernaniarrari.

Sorrera

Bada jendea txikitatik oholta gainean hasi dena musika munduan. Xabi Solano dugu horietako bat. Berak dioenaren arabera, bere lehen aldian eszenatoki baten gainean Ereñotzun izan zen, 10 urte zituela Joan Mari Beasainekin batera.


Badago jendea urte asko daramatzana euskaraz abesten baina baita beste hizkuntza batzuetan ere, fama bila. Baina Xabi Solano ez. Berak beti euskaraz abestu izan du eta berarentzat hobe da bere hizkuntzan kantatzea beste hizkuntza batean baino. 9 urterekin hasi zen trikitixa jotzen. Trikitixa Euskal Herrian instrumentu famatuenetako bat da. Beste leku batzuetan ere jo izan da baina bereziki hemen, Euskal Herrian.

Trikitalari honek dioenez, bere ama hizkuntza euskara da eta beti hitz egiten du hizkuntza honetan, bai lanean, baita bere familiarekin eta lagunekin ere. Nahiz eta bere ingurunea euskalduna izan, euskara galtzen ari zenean edo hitz egitea debekatua zegoenean, Urumea bailaran ere abestien bitartez aho transmisioaz lortu da euskara mantentzea.



Grafiko honetan ikus dezakegun bezala, gaur egungo jendearen ama-hizkuntza, euskara, gutxi da eta adituek diotenez indarra hartu behar du, euskara bultzatzeko eta lehen bezala euskara berriz askorentzat behintzat ama hizkuntza izateko.

Beste grafiko honetan, berriz, zera ageri da, ama hizkuntza euskarako emaitza handiagoa dela bi hizkuntzak ama hizkun-



tza dituztenak baino, eta 16-24 urte bitartekoak eta 65 urte baino gehiagokoak ama hizkuntza euskara gehiago dute, besteek baino.

Jarraipena

Xabi Solano talde desberdinetan egon izan da. Lehen Etxakit taldean egon zen. Gero, 4 Itzal rock taldean, ondoren Fermin Muguruzarekin hasi zen, eta oraindik bertan jotzen du batzuetan. Gaur egun Esne Beltza taldean dago eta arrakasta handia izaten ari da eta bere bakarkako proiektu batean ere badabil. Solanoren iritziz erraza izan da euskarazko talde batean egotea euskalduna delako, bere ustez beste hizkuntza batean abestuko balu zailago egingo litzaiokeela dio.

«Niretzako euskaraz abestea da ni izatea eta azkenean, abesteko momentuan eta nire hizkuntzan egiten baldin badut, beti ere erosoago sentitzen naiz. Beraz, niretzako euskaraz abestea da ni neu sentitzea».

Atzerrian

Beti arraro egiten da hizkuntza bat ezagutzen ez denean, jendea etortzea herrietara abestera. Eta etorri ohi direnean jakimin handia izaten da horri buruzko informazioa eta nolakoak diren jakiteko. Horri buruz galdetzean Solanok dioenez, askotan abestu izan du Japonian Esne Beltza taldearekin batera, eta horrek lagundu dio ate berriak irekitzen, beti harrera oso ona egin diotelako Japonian.

Xabi oso pozik dago atzerri-tarrei euskaraz abesteagatik, eta hango batzuei haien abestiak entzuteaz oraindik gehiago. Gainera, adierazten du bigarren aldira Japoniara joan zenean, bertakoak beraien abestiak abesten ari zirela eta horrek poztasun handia ematen ziola.

Euskara eta gaur egungo jendea

Xabi Solanok dioenaren arabera badago jendea euskaraz musika entzuten duena, baina hala ere euskal musika askoz gutxiago entzuten da beste hizkuntza batzuetan baino.

«Nik ez dut esaten atekak itxia beste hizkuntzei eta beste



erritmoei eta kulturei, baina nik uste bertakoei heutsi egin beharko geniekela».

Bere kontzertuetan adin guztietako pertsonak daude, gazte- txoak eta baita helduak ere. Denetik dago, oso publiko zabala da.

Euskal musikaren etorkizuna

Xabiri galdetzean ea zer etorkizun ikusten dion euskal musikari, hauek dira bere hitzak: «Nik uste, denon artean lana egin behar genukeela eta konturatu behar garela euskararekin zer altxor daukagun, horrek bihurtzen gaituela ezberdin, berezi, gu izatea... Eta nik uste etorkizuna ezin dugula bertan behera utzi. Gero eta indar gehiago jarri behar diogula euskara bultzatzeari».

Egilea: Malen Urkizu Arrozpide

Dantza, euskararen islada

Gaur egun ohituta gaude herrian euskal dantza taldeak egotea, baina duela urte batzuk ez zen ain erreza gure hizkuntzaz gozatzeko dantzatzeari.

1964. urtean hasi ziren lehenengo euskal dantza taldeak Durangon, Beatriz Antxiak, Durangotarrak, bertako lehenengo dantza taldean hartu zuen parte, hau da, Tronperri-n.

HASIERA ZAILA

Momentu horretan euskara oso ahula zen, berak, etxean pixka bat hitzgeiten zuen, baina hizkuntza ez zuen askoz jende gehiagok erabiltzen: batzuk, ez zutelako ikasi, beste askok aldiz, berdurrarengatik. Beraz, talde honen helburu nagusietako bat, euskara erabiltzen hasteko eta jendea bere presentziaz

konturatzeke mugimendu bat hastea izan zen.

1964-1975. urteko Beatrizen euskal dantza taldea.

Hasieran zaila egin zitzairen taldea aurrera ateratzea, euskararekin erlazioa zuen guztia debekatua baitzegoen, eta honen euskaldunen artean beldur asko sortzen zuen. Beatrizek 11 urte bakarrik zituen arren, polizia beraiek dantzatzeko zuten lekuaren inguruan ibiltzen ziren: «ni akordetan naz, alpargatak eruatzen ginusela beso azpian» nabarmendu du.

Naiz eta Bea oso txikia izan,

denataz konturatzen zen, gurdiazibilak dantzariak ezkutuan eramaten zutena begiratzen hasten ziren eta.

EGOERAZ JABETZEN

Talde guztia bertakoa zen arren, hau da, denak auskaldunak ziren arren, gazteleaz hitz egiten zuten. Baina hau ez zen hor bakarrik gertatzen: «kolegixuen dena gastelera eiten giñuen» azpimarratu du. Gainera, momentuan hizkuntzarekin zerkusia zuten gauza guzti guztiak desagertzeko indar asko zegoela adierazi du:

«zer da dantsa, eta hori be, gaiski ikuste aben eta bildurre sartseotxuen».

Pixkanaka, Bea, beste batzuekin batera, Euskal Herriaren egoeraz gehiago ohartzen

hasi zirela kontatu du, eta honi esker, gauzak pixkanaka aldatzen joan ziren: «ya geusiek jun siren aldatsen, beldurrekin, baña ya aldatsen».

ZATIKETA

17 urte zituela, Tronperri taldea desegin egin zen eta bi talde txikitari banatu ziren: Tromperri eta Txoritxo. Hortik urte batzuetara, Tromperri dantza taldearen 25. urteurrena ospatu zen, eta berriz dantzan hasi zen bere lehenoko lagunekin, horrela Kriskitin Dantza Taldea sortuz.

Orain Kriskitin asko aldatu dela irudeitzen zaio Beatrizi, denak euskeraz hitz egiten dutelako batezere. Bere hitzetan, orain

«Materiala izkutatuta eraman bar giñuen»



arraroagoa da dantzariak gazteleaz entzutea eta gutxinaka, gazteleaz hitz egiten jarraitzen duten horiek ere, euskeraz mintzatzea nahiko lukeela azaldu du.

50. urteurrena ospatu zenean, euskal dantzen etorkizuna argi ikusi zuen: «posasun asko emo-ostan, ze ikusi naben gastiak, gausiek aldatseko indertsu eta gogoas».

Egilea: Hize Andueza Zubimendi

Azeri dantza

Lehenengo dantza eta gero bizkarra gorria edo giza-dorrea eta antzerkia, zer nahiago duzu?

Azeri Dantza Hernaniko dantza mota bat da, baina ez da edozein dantza bezalakoa. Dantza honek mende asko daramatza Hernaniko kaleak mugitzen eta alaitzen. Maskuriarekin jotzen dituzte ume zein helduak. Seguruenik bizkarrak pikatuko du, baina zaila da min egitera iristea. Azeri bat ere badago, parte hartzaile bat azeri baten maskurarekin, herria dantzan jartzen duena. Inauterietan eta San Joanetan egiten da. Egunero goizeko bederatzietan. Jantzi bereziak dituzte, herri bakoitzak bere arropa du, batzuk gorriak eta besteak urdinak. Adunan eta Andoainen ere dantzaten da, baina oso ezberdina da, ez dago ez maskuririk ezta bizkar gorrikerik ere.

HISTORIA:

Azeri Dantza Hernanin ospatzen den dantza ohikoa da, duela 3 mendetatik egiten da, konkretuki, 1735. urtean hasi ziren egiten eta oso arrakastatsua izan zen

XX. mende hasieran. Hasiera batean Azeri Dantza inauterietan egiten zen, baina 1936. urteko gerraren ondoren, inauteriak debekatu ziren Euskal Herrian. 1944. urtean Azeri Dantzarekin San Joanetan jarraitzea erabaki zen. Gaur egun Azeri Dantza inauterietan ere egiten da. Hasieran 15 pertsonen parte hartzen zuten bakarrik eta 1988an Luis Telleriak pertsonai berri bat gehitzea lortu zuen: azeria. 1998an, gaztetxoek Azeri-dantza sortu zen. Bestearen berdina da, baina helduak izan beharrean gaztetxoak dira sokarekin eta maskuriek ateratzen direnak. Azeria ere gaztetxo bat izaten da.

EZAUGARRIAK:

Hernanin, urte guzti hauetan asko aldatu da, baina ezaugarri berberak edukitzen jarraitzen du. Dantzan 15 pertsona ateratzen dira 20-25 metroko soka bati helduta, eta maskuri bat daramate eskuetan. Txistulariak ibiltzen

dira dantzari erritmoa jartzen eta dantzaren helburua musikaren erritmoa azkartzen denean sokarekin borobil bat egin eta barruan geratzen diren herritarrei maskuriek jotzea da. Ez du minik egiten, baina normalean pikatu egiten du. Duela mende bat arte maskuria sokako lehenengoak eta azkenekoak eramaten zuten, eta gainontzekoak irina kolorantearekin eramaten zuten, ikusten ari ziren herritarrek zikintzeko.

Azeri dantzako pratideak portaletan, dendetan eta bidezidorretan ezkututzen dira eta herritarrek ezustekoan harrapatzen ditu. Hibilbidea herriko alde zaharretik barrena egiten da, Andre Kale eta Kale Nagusitik.

Bukatzeo, ibilbidearen amaieran, denak Gudarien Plazan elkartzen dira eta partaide guztiak dantza bat dantzaten dute. Dantza bukatzean, berez, maskuria lurrean utzi eta puskatu egiten dute salto eginez, baina azken urteetan ume txikienei oparitzen dizkiete beraien artean jolasteko.

Dantza hau, inauterietan eta San Joanetan egiten da, goizeko bederatzietan. Nahiz eta oso goiz izan jende asko elkartzen da, batez ere ume eta gazteak.



Ezaugarri berezi bat ere badu, inauterietan gizon eta emakumeak parte hartu dezakete, baina San Joanetan ez da berdina. 25 eta 26ean gizonetako bakarrik parte hartu dezakete eta 27an gizon eta emakumeek.

Andoainen, gaur egun, San Joanetan egiten da, ekainaren 24ean, baina lehen, inauterietan ere egiten zen. Eguerdiko 12etan da, Goikoplazan. Hernanikoarekin konparatua oso ezberdina da, ez dute maskuririk, ezta sokarik. Plazatik dantza egiten dute eta momentu batean antzerki moduko bat egiten da eta giza-dorrea egiten dute.

Adunan, berriz, abuztuaren 15ean dantzaten da, aspaldi egiten den dantza bat da, herriko jaietan. Urte batzutan galdu egin zen, baina, berriro ere berreskuratu dute. Herri hontako

Azeri-dantza Andoaingoaren berdina da. Herriko plazan dantzaten dute.

JANTZIAK:

Hernanin, partaide guztiak berdina doaz jantzita. Normalean galtza urdin ilunak, kamiseta txuria eta eskularru txuri bat, maskuriaren sokarekin minik ez egiteko. Azeria beste arropa batekin doa jantzita, galtza urdin ilunak, alkandora txuria, koloredun zapi lepoan, galtzerdi txuri luzeak, abarkak, gerriko beltza, azeriaren maskara eta maskuria.

Andoainen eta Adunan berriz, galtza grisak eta soineko gorri bat eramaten dute. Zapi koloredunak buruan, abarka txuriak eta soinekoaren azpitik kamiseta txuri bat.

Egilea: *Uxue Santxo*

Herri kirolak

Euskal Herrian, baserriko lanak herri kiroltan bihurtu ditugu. Zer material mota erabiltzen da? Herri kirol bakoitzean material desberdina erabiltzen da, baina denek zerikusia dute denentzatean, denak baserriko lanabesak direlako. Zer herri kirol mota dauka? Herri kirol asko dauka, ezagunenak hauek dira: txingak, soka tira, lokotx bilketa, harri jasotzea... Izen hau moderno xamarra da Euskal Iparraldean Indar joko moduan ezagutzen da. Herri kirolak historian zehar baserriko lanak izan dira, baina gaur egun tradizio bihurtu dira, nahiz eta kirol batzuk baserriko ohiko lanak segitzen duten izaten, gehienak tradizio bihurtu dira.

Baserriko lanak

Gaur egungo Herri kirolak ez dira beti ospakizun edo lehia izan. Hasieran baserriko lanak edo eguneroko lanak ziren batez ere. Zeintzuk dira eguneroko/ baserriko lan horiek orain lehia bihurtu direnak? idi/zaldi lasterketa, artzain-txakurren lehiaketak, aizkora proba, soka tira etab.

Idi/zaldi lasterketa: hauek baserriko uztak eta animaliak garratatzeko balio zuten, baita ere, harrobietan egindako lanagatik

gelditzen ziren harri soberak. Leherketetan lortutako harriak lantzen ziren, eta, ondoren, idiek/zaldiek eramaten zituzten garraiatu behar ziren lekura. Gaur egun uzta eta animalia horiek harriekin aldatu dira, nahiz eta lehen ere harriak garraiatu, gaur egun kiloka doa harria. Animaliak begiak estaliak dituzte ez erotzeko edo ez estutzeko.

Artzai-txakurren lehiaketak: Gaur egungo eta lehengo artzai txakurrak, bai ardiei, bai behiei eta beste abereak agintzeko erabiltzen dira baserrietan, lehiaketa hauen oinarria, zeinek azkarren biltzen edo bateratzen dituen animaliak da.

Aizkora proba: Lehiaketa hau basoen zainketatik sortzen da, egurra lortzeko, eta kuadrillak egiten zituzten. Kuadrilletako kide gazteenek edo indartsuek zuhaitzak mozten zituzten eta zaharrenek adarrak eta azalak zatitu, kendu eta enborrak puskatan zatitzen zituzten. Honen oinarria zeinek azkarren mozten duen da.

Soka tira: Euskal Herriko kirola edo lehia da, baina mundu guztitik zehar banatu da. 1900tik 1920ra Olinpiadetan kirol olinpiko moduan egon zen. Lehia hau marinelen harira sortu zen, itsasontziak sokatik tiraka portura eramaten zituztelako, eta baleak ehizatzen zituztenean, hil ondoren, lehorreratu egin behar zirelako arrastaka banatzeko, buru-

tik eta isatsetik tiraka.

Hauek baserrietako bizilagunen arteko erronkei esker praktika eta ospea zabaldu zen. Baita ere, ikusleentzako araudiak, epaileak eta apustuak dituzten ikuskizunak bihurtu dira. Lan hauek oraindik ohikoak dira Euskal Herrian.

Herri kirolen historia

Eusko Jaurlaritzak 2006an Herri kirolak kirol ofiziala bihurtu zituzten. Hasieran hauek 18 kirol ziren. Gainerakoengatik nabarmentzeko marka bat jarri zien H18K. Lehen garaletan apostuekin eta erronkekin hasi ziren gaur egun ezagutzen ditugun herri kirolak. Nola egiten ziren apostuak lehen? horrelako zerbait esaten zenuen, apostua prest zegoen «3000€ apustu egiten dut 2 minututan beste edozeinek baino gehiago altxatzen dudala 100kg-ko harri borobila. Norbaiten erroka onartzen badu datorren astean Tolosako Cantábrico tabernan egongo naiz apustua finkatzeko». Hauek herriko edo baserriko bizi lagunen eta lagun arteko errokkak izaten ziren batez ere. Herri kirolek diru dezente mugitzen dute herriko plazetan, ohiko ikuskizunak dira eta. Gaur egungo sega joko lehen baserriko lan garrantzitsua zen belarra beharrezkoa zen ganadua elikatzeo, eta azkar moztu behar zen; izan ere, belarra moztu ondoren, zelaia zabaldua geratzen

da eta busti egin zezakeen. Ingude altxatzea, baita ere, ez da oraingoa bezala. Lehiaketa hau, errementariet leku batetik bestera joaten zirenean lan batzuk egitera joaten zirenean ingudeak bizkar gainean eramaten zituzten, horri esker sortu zen. Harri zulatzaieen lehiaketa ez da oso ezaguna, baina lehen meatzari-tzako lanak egiten ziren. Bertan, harrizulatzaileek harria zulatzen zuten, ondoren lehertu egiten zituzten dinamitzako kartutxoak jartzeko zuloak sortuz, eta horrela, burdina zuten arrokkak ateratzen zituzten. Zaku lasterketa ere, ez zen gaur egun ezagutze dugun bezalakoa, lehiaketa hau kontrabandistak egiten zuten Espainiaren eta Frantziaren arteko mugetan. Aizkora proba ere ez zen gaur egungoa bezala. Honek esan nahi duena da gaur egungo herri kirolak ez direla beti horrela izan, gehienak eguneroko lanak ziren.

Herri kirolen deskribapena

Gaur egun material asko eta asko erabiltzen da, baita ere, mota askotakoa. Kirol bakoitzeko material desberdina erabiltzen da, adibidez: gurdi altxaketa, fardel altxaketa, baita, ingude altxaketa. Nahiz eta, hiruak altxaketa probak izan material oso desberdina erabiltzen da.

Gurdi altxaketa: animaliek tiratzen duten orga ohiko bat, haga puntu finko batean jarria, biraketa-ardatzarena egiten duena.

Ingude altxaketa: lehiaketan ingude bat, euskarri bat lurretik metrora iristen dena, bi xafla bata bisera deitua dago. Burdinezko ingudea 18 kilokoa, 320mm-ko altuera eta 600mm-ko luzera, baita ere, helduleku laueak 40mm-koak izan behar du ingudeak lehiaketan. Biserak edo xaflak 500mm-ko luzera eta 400mm-ko zabalera du, bi xafla hauek lauki zuzenak dira

Fardel altxaketa: Zakua 45kg-koa da lastoz betea, estrukturak 7m neurtzen du gizonen proban emakumeen proban 5m.

Herri kirolen ospakizuna

Gaur egun herri kirol ospakizun asko egoten dira, gehienak herriko festetan ikusten dira. Gehienetan txistulariak ematen die sarrera herriko ekintza honi. Bi motakoak izan daitezke ospakizunak. Bata, herritarrek/ haurrek parte hartu dezaketena, eta bestea, bestea profesional batzuen. Zein dira kirol ohikoak ospakizunetan? Idi probak/ zaldik probak, harri altxaketa, trontza joko eta aizkora proba... hauek profesionalak egin ohi dute, beste hauek, berriz, zaku lasterketa, lokotx bilketa, txingak, soka tira. Hauek haurrek/ herritarrek parte hartzeko egiten diren probak dira, nahiz eta batzuk proba ofizialak izan haurrentzat/herritarrentzat jartzen dira.

Egilea: *Hegoa Balda*

Euskaldun berriak... noiz arte?

Euskal Herria eta Extremadura bihotzean, bizikidetza zaila bi kulturen artean. Sustraiak toki batean izanik beste leku bateko hizkuntza maita daitekeela eta maitatu behar dela erakutsi digu Maribel Ávilak, gazteleraz hazirik, euskara ikastea posible da eta denok egin beharko genuke.

Jaiotza patu

Extremadurako Castilblanco herrian jaio zen Maribel Ávila Marcos, 1954ko irailaren 19an. Ahizpa eta anaia etxean utzirik gainontzeko familiarekin heldu zen Lasartera 12 urte zituela. Garai hartan, euskara ezer gutxi erabiltzen zenez, hamar urte pasa arte ez zuen hizkuntza hura ikasteko beharrik sentitu, gerotzik, euskara zeinen hizkuntza garrantzitsua eta berezia den ohartu da eta ahaleginak egin ditu hura ongi ikasteko, ez da gutxi garai hartarako, kanpotarra eta familia baten ama dela jakinik. Hala ere, bere burua euskalduntzat eta extramurartzat du, bi herrialdeekiko maitasun berbera hizkuntza ezberdinen baitan.

Urrats bat iparraldera

Etorkinak ondo hartzen zituzten Lasarten garai haietan, Maribelek ez zuen arazorik eduki bertako bizimodura ohitzeko eta euskara ez jakitea ez zuen oztopo izan. Lagunen batek, gelakideren batek, hitz egiten zuela

euskaraz, baina gehiengoak erdararako joera zuela dio. Baina 17 urte zituela, Euskal Herrian egonik euskara ikasi behar zuela ohartu zen, bertako hizkuntza ez den hizkuntza batean hitz egitea ez zela aproposena eta hala lagun baten etxean hasi zela lehenengo urratsak ematen adierazi du. «Kataluinara joango banintz, katalana ikasiko nuke eta Euskal Herrian egonik euskara ikasi behar da» dio berak.

Maribelen hitzetan, herri bateko hizkuntza ikastea funtsezkoa da bertako kulturak aurrera jarrai dezan nahiz eta euskalduna den jendeak ere euskaraz hitzegiten jarraitu behar duen hori bermatzeko. Euskal Herrira etortzen direnek euskara ikastea oso garrantzitsua dela adierazi du eta horretarako erraztasun gehiago egongo balira, jende gehiagok ikasiko lukeela deritzo.

Lehentasunak oinarritzat harturik

22 urte zituela haurdun zegoela jakin zuen, bere ama hizkuntza

erdara zela jakinik ez zuen bere haurrak kanpotar baten seme alabak izaterik, etxean erdaraz hitz egiten zutenak, ez. Lehendik ere hasita bazegoen, ere euskara ikasteari ekin zion bigarrenez, «Banekien erronka zaila zela hura eta urte askotako inplikazioa eskatuko zidala, baina neuk nahi nuelako egin nuen» azaldu du. Langile ikastolan bertan ikasten zuela dio, beste hainbat gurasorekin batera, bazela ama bat irakasteko prest zena eta hurrek erabiltzen zituzten liburu berberekin ikasten zutela. Hala, bere umeak euskaraz hazi eta hezi ahal izan zituen beste haur guztien antzera eta hori guztia gutxi balitz, bere euskara hobetu nahian edo etxekoek bizpauru urte zituzteanean AEK-an hasi zen.

Praktikatzea oso garrantzitsua dela uste du elkarrizketatuak, izan ere, horrela belarria euskarara egiten zaizula dio eta euskara ingurune batean askoz errazagoa dela hizkuntza hori ikastea, «Entzuten ere ikasi egin behar da» aipatu du berak, «eta entzunez, asko ikasten da».

Euskararen giltza zabalduz

Erdarazko enbor batetik jaio gara, hala egokitu zaigu, baina gure esku dago zuhaitz hori euskaraz lora dadin, ala haizeari jarraituz erdararako edo frantse-serako joera izango duen, gure

leen arau nagusia kontatu digu: «Ikastola honetan irakasle guztiek euskaraz egin behar dute. Ingelesa edo gaztelera ez den klaseez gain».

Sortu zenean, ikasle gehienak euskaldunak ziren, baina bazeuden euskaraz hitz egiten ez zekitenak ere. Euskaraz ez zekien jendea bertan ikastera joaten zen. Horiek hasieran «Beredua» izeneko klaseetan banatzen zituzten. Bertan, euskara ikasten zuten eta gero, euskaldunekin kontaktuan jaten zituzten euskara nola erabili jakiteko. Langilek beti mailaka funtzionatu du. Hasieran euskaraz ez zekitenekin, 2 maila elkartzen zituzten, ez zirelako euskaldunak bezainbeste. Baina orain jende gehiago dagoenez euskaraz hitz egiten ez dakitenak euskaldunekin nahasten dituzte. «Langile ikastola euskararen alde egongo da beti, jendeak hori ikusteko, euskararen aldeko ekintzak egiten dira» kontatu digute irakasleek. Adibidez kalderero festa,



esku dago lore horien fruituak euskaraz haz daitezela. «Euskara hizkuntza txikia da eta horrek egiten du hain berezi» adierazi du Maribelek, bere ustetan euskara gure nortasunaren parte da, euskaldunon artean mintzatzeko dugun altxorrik preziatuena eta maitatuena, azken finean ingelesa jende askok daki eta edozeinek uler dezake, euskara aldiz euskaldunok baino ez dakigu eta guk dugu bere giltza. Hizkuntza txiki bat izatea ondo dago, baina giltza hori zabaldu beharko genuke, geuretzat gordetzeko joera dugu eta partekatuko bagenu jendeari ate asko irekiko genizkioke. Giltza txikia handi egin behar dugu.

«Euskaldun berri izateak jendea beldurtu egiten du» esan du elkarrizketatuak, euskara ikasi duen jendeak badu euskararekiko maitasun hori, badu interes eta jakin min hori, ez al da ba hori euskalduna izatea? Euskaldun berri asko beldur dira, beldur dira hanka sartuko ote duten eta lotsatu egiten dira. Norbere euskaraz lotsatzea ba-

koitzaren birtude handienaz lotsatzea dela deritzo berak, «euskara guztiak dira ezberdinak eta ezberdinak izateak ez du esan nahi guztiak zoragarriak ez direnik».

Ama hizkuntzak botere handia du gure gizartean, zer ikus hura ikasi, baina... Zergatik ezin dezakegu gure ama hizkuntza ez den beste hizkuntza bat ere maitatu? Jendearen ustez euskara gerora ikasi duen jendea ez da euskalduna euskaldun berria da. Maribelen ustez euskaldun berri eta euskaldun terminoak gaizki erabiliak ditugu gure gizartean, euskaldunak guztiok gara; «Euskaraz hitz egiten duen edo hitz nahi duen pertsona oro da euskalduna» kontatu du berak, eta euskaldun berria euskara gerora ikasi duen pertsona hori da, etxean beste hizkuntza bat erabili izanik, euskara ikasi nahi duela erabaki duen pertsona hori. Bere hitzetan «Guztiok izan gaitezke euskaldun, baldin eta nahi hori badugu».

Egilea: Saioa Apaolaza

Nolakoa da ikastola baten sorrera?

Orain dela 53 urte, 1970ean, Langile ikastola sortu zen. Irudimena, lana eta dirua jarrita, guraso talde batek eta Urumea ikastolako bi irakaslek sortu zuten, Jone Errazkin eta Begoña Ugaldok.

Ikastola hau, D ereduko ikastola bat da, hezkuntza tradizionalari alternatiba bilatzeko sortu zuten. Nahiz eta Franko garaian sortua izan zen, beti euskalduna izan da.

Garapena:

Ikastola sortu zenean, gorabehera handiak eduki zituzten, ez zuten dirurik, lekurik... Hasiera batean, Elizatxo auzoko etxabe batean hasi ziren eta geroago, Floridako beste etxabe batera pasa ziren. Gehiengotan, beraien ikasteko lekuak udaletxearen lokalak, bajuak...

ziren. Garai hartan, elizaren babespean zegoen, hernaniko parrokiaren babespean. Ondoren, Beasaingo eskola baten babespean egon zen. Ikasleen fitxak, bertan zituzten. Azkenik, juridikoki ikastola bihurtu zen, eta 1993. urtean batzar nagusi batean, eskola publikoa izatea erabaki zuten.

Eskola euskaldun bat sortzearen ideia, irakasle eta guraso gazteen artean zabaldu zen, orduan proiektura jende gehiago gehitu zen. Langile ikastolan arauak ez dira umeentzat bakarrik, irakasle batek irakas-



leko irratia inauteriak...eta ikastolaren sorrera eguna ospatzeko, klaseak, kanpoan egiten zituzten. Mahaiak eta materiala kanpora atera eta kanpoan tailerrak egiten zituzten.

Jende asko dago euskaraz hitz egiten dakiena, baina ez dute denek erabiltzen. Badago jendea, katean gazteleraz egiten duena, lagunekin gazteleraz egiten duena, denda batera joatean, bere lehen hitza gazteleraz dena... Hau ez gertatzeko, Langilek, umeek euskaraz hitz egitea eta beste modu batera ikastea nahi

du. Esan daiteke lortu duela, hasieran, 30 ikasle baina gutxiago ziren eta gaur egun, gutxigorabera 657 ikasle dira. Nahiz eta euskararen erabilera gutxitzen ari den, Langile ikastolako irakasleek, hau esaten dute: «Langile ikastolan beti euskaraz egingo da», «Langile ikastola, euskaraz ez den hizkuntza batean ezin da ulertu». Hau entzunda, badakigu Langile ikastola, beti euskalduna izango dela.

Egilea: Aiora Urruzola